

Pauso gehiago kontsumo arduratsu eta jasangarri baten alde

EROSKI-K ONTZI OSOKI BIRZIKLATUAK ETA BIRZIKLAGARRIAK JARRI DITU OPILEN ATALEAN

- Dendetan ontziratzen diren opil produktu guztiak eredu berri eta jasangarriago horren bidez ontziratzen dira
- Ekimen horren aurretik, izan dira hobekuntza gehiago ere dendetan ontziratzen den haragian eta arrainean; horien ontziek %80 PET birziklatua dute
- EROSKIren helburua da 2025erako gaur egun darabiltzan erabilera bakarreko ohiko plastikoen tonak behintzat %20 gutxitzea

Elorrio, 2019ko urriaren 15a.- [EROSKI](#) aurrerapenak egiten ari da Osasunaren eta Jasangarritasunaren alde hartuak dituen hamar konpromisoetan. Asmoa da kontsumitzaileei bizimodu osasungarriago eta jasangarriago bat erraztea. Hori dela eta, ontzi berriak jarri ditu dendetan ontziratutako opil produktuetan; ontzi horiek birziklagarriak dira eta material birziklatuekin eginak dira; horrela, ekonomia zirkularraren eredua bultzatzen da. Lehengo ontzien partez, osoki PET birziklatuarekin eginak diren eta birziklagarriak diren ontziak darabiltza kooperatibak. Horretaz gainera, dendetan ontziratzen den haragiaren eta arrainaren plastikozko erretiluak ordezkatu ditu %80 PET birziklatua duten beste batzuekin.

"Lanean dihardugu gure produktuak eta dendak gero eta jasangarriagoak izan daitezen. Aldaketa honek ekonomia zirkularraren alde egiten du; izan ere, ur botilen plastikoa opilen erretiluak egiteko birziklatzen da. Gainera, erretilu horiek berak berriz birzikla daitezke edukiontzi horira botata, beste produktu batzuen lehengai izan daitezen. Dendako opilen erretiluak ordezkaturik, 250 tona plastiko birjina gutxiago erabiliko dira urtean", azaldu du EROSKIren Osasun eta Jasangarritasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

Ekimen berri horren aurretik, EROSKI beste batzuk garatuak ditu bere marka propioko ontzietan ingurumen irizpideen arabera; batez ere dendetan erabiltzen diren ontzi eta erretiluetan, lehentasuna elikagaiei eta freskoei emanez. Frutategian, igo egin du pisura saltzen den erreferentzia kopurua (orotara dagoeneko %60 baino gehiago dira), eta EROSKI Natur markako fruta eta berdura batzuen erretiluetako plastikoa ordezkatu du FSC® zigilua duen paperarekin; horrek bermatzen du iturri arduratsuetatik datorrela. Frutategiko ekintza horiekin, 46 tona plastiko aurreztuko ditu kooperatibak urtean.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es**EROSKI – PRENTSA BULEGOA****CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Plastikoaren erabilera gutxitzeko neurriak

EROSKIk egin duen lanari esker, sektoreko liderra da plastikoak ingurumenean duen eragina gutxitzeaz denaz bezainbat. Haren helburua da 2025era iristerako bere ontzietan erabilera bakarreko ohiko plastiko tonak %20 behintzat gutxitzea.

Plastikoaren kutsaduraren aurkako estrategia horretan, EROSKIk eusten dio bere ontzi guzti-guztiak 2025erako ekodiseinatzeko konpromisoari; hala, asmoa da ordurako denak birziklagarriak izatea, gehiegizko ontziratzeak eragozteak eta material birziklatuen eta jatorri berriztagarrikoen erabilera indartzea. Helburu hori erdiesteko, EROSKIk beste zenbait neurri martxan jarri ditu, aurretik aipaturiko frutategiko erretilu eta ontzi horietatik kanpo. Nabarmentzekoak dira bezeroengan berrerabilera indartzeko ekintzak. Hala, bezeroei aukera emango die beren ontzi berrerabilgarriak erabiltzeko —hala nola jakiontzia eta taperrak— harategiaren eta arrandegiaren ataletan. Gainera, orain hilabete batzuk, kooperatibak sare berrerabilgarritz eginiko poltsa bat jarri zuen erabilera bakarreko plastikozkoaren alternatiba gisa, pisura erosten den fruta eta berdurarako. Sarezko poltsa berriok garbitu egin daitezke, eta gutxienez hogeitaz ere erabili.

Era berean, 2019aren hasieran, irtenbide jasangarrien sorta zabal bat ezarri zuen, erosketetan erabili ohi den plastikozko poltsa ordezkatzeko. Hala, FSC® zigilua (Forest Stewardship Council) duen paperezko poltsa misto berri bat atera du. Horrela ziurtatzen du behar bezala kudeatutako baso ziurtagiridunetatik datorrela paperaren zuntza, eta erabat landare-jatorri berriztagarriko materialekin egin dagoela; horretaz gainera, beste poltsa konpostagarri bat du zabor organikoaren poltsa gisa erabil daitekeena. Eta, halaber, erabat birzikla daitekeen beste poltsa berrerabilgarri bat, lehengaiaren %55 gutxienez plastiko birziklatua duena. Soluzio jasangarri berri horiekin batera, kooperatibak hor izango ditu lehendik ere eskaintzen dituen alternatibak, hau da: poltsa berrerabilgarria —%70 material birziklatuz egin— eta telazko elkartasun poltsa berrerabilgarria, zeina erraz tolesteko modukoa baita, sakelan edo autoan edukitzeko; bera salduta lortzen den dirua elkartasun kausetarako erabiltzen da.

Ingurumenaren aldeko konpromisoa

Kooperatiba honek konpromiso sendoa du ingurumenarekin; alde horretatik, zenbait ekimenetan dihardu, ingurunean bere jarduerak dakartzan kalteak gutxitzeko. Helburuak argiak dira, baliabideak modu jasangarrian erabiltzea, ingurumen azterna gutxitzea, hondakinak ekonomia zirkularraren ereduari jarraituz kudeatzea, bioaniztasunari eustea... Eta halaxe jasoak ditu [Osasunaren eta Jasangarritasunaren alde berrituriko konpromisoetan](#). *Iaz aurkeztu zituen konpromiso horiek, eta horien haritik doa bere ontzien eta bilgarrien ekodiseinua bera ere.*

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)